**Zk-6292**

EBAZPENA, 2004ko azaroaren 22koa, Lanbide Heziketako zuzendariarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzeko probetarako deialdia egiten duena.

Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzea arautzen duen 1998ko martxoaren 10eko Aginduak honako hau xedatu du bere 2.1.1 artikuluan: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero deitu ahal izango du heziketa-zikloetan sartzeko probara.

Horregatik, hauxe

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Deialdia.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1998ko martxoaren 10eko Aginduaren bitartez (apirilaren 8ko EHAA), Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzea arautzen da. Bada, Agindu horren 2. artikuluak aipatzen dituen Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probetarako deialdia egiten da, 2005. urteari dagokionez.

*2. artikulua.–* Izangaiak.

Aipatu probak egin ahal izateko, 1998ko martxoaren 10eko aipatu Aginduaren 2.2.1 eta 2.3.1 artikuluetan proba bakoitzerako ezarritako baldintzak bete beharko dituzte izangaiek.

Erdi-mailarako probak:

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko proban parte hartzeko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

– Proba egiten den urtean gutxienez hamazortzi urte beteta izatea.

– Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak edota afiliatuta dagoen lan-mutualitateak emandako ziurtagiriaren bitartez, gutxienez urtebeteko lan-esperientzia izatea egiaztatzea (ziurtagirian enpresa eta kontratazio-aldia zehaztu beharko dira).

– Gizarte-garantiako programa bat gaindituta izatea.

Goi-mailarako probak:

Proba egiten den urtean hogei urte beteta dauzkaten lagunek parte hartu ahalko dute goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko proban.

Teknikari titulua egiaztaturik dutenek, arauz ezarritako lanbide-alor bereko edo bertsuko goi-mailako heziketa-ziklo batera sartu nahi badute, proba egin ahal izateko, 18 urte beteta eduki beharko dituzte proba egiten den urtean.

*3. artikulua.–* Proben edukia.

**N°-6292**

RESOLUCIÓN de 22 de noviembre de 2004, del Director de Formación Profesional, por la que se convocan pruebas de acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional.

La Orden de 10 de marzo de 1998 por la que se regula el acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional, dispone en su artículo 2.1.1 que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá convocar anualmente una prueba para el acceso a los Ciclos Formativos.

En su virtud

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Convocatoria.

Se convocan las pruebas de acceso a los ciclos formativos de Grado Medio y de Grado Superior de Formación Profesional correspondientes al año 2005 a las que se refiere el artículo 2 de la Orden de 10 de marzo de 1998, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional (BOPV de 8 de abril).

*Artículo 2.–* Aspirantes.

Para tomar parte en la realización de dichas pruebas los aspirantes deberán reunir los requisitos establecidos para cada una de ellas en el artículo 2.2.1 y 2.3.1 de la citada Orden de 10 de marzo de 1998.

Pruebas de grado medio:

Para concurrir a la prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Medio se requerirá cumplir alguna de las siguientes condiciones:

– Tener, como mínimo, dieciocho años de edad cumplidos el año de celebración de la prueba.

– Acreditar al menos un año de experiencia laboral mediante certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social y/o de la mutualidad laboral a la que estuviera afiliado/a, donde conste la empresa y el periodo de contratación.

– Haber superado un programa de garantía social.

Pruebas de grado superior:

Podrán concurrir a la prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Superior las personas que tengan cumplidos los veinte años el año de celebración de la prueba.

Para quienes acrediten estar en posesión del título de técnico y deseen acceder a un Ciclo Formativo de Grado Superior de la misma familia profesional o de una familia afín, reglamentariamente establecida, el requisito de edad para la realización de la prueba será de 18 años el año de celebración de la prueba.

*Artículo 3.–* Contenido de las pruebas.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetariko edozeinetan egin ahal izango da proba, eta bere edukia bat etorriko da 1998ko martxoaren 10eko Aginduaren 2.2.2 eta 2.3.2 artikuluan zehaztutako helburuekin.

2.– Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko proba bakarra izango da, ikasi nahi den heziketa-zikloa edozein delarik ere, eta bi zati izango ditu: soziolinguistikoa eta zientifiko-teknologikoa.

3.–– Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko probak bi zati izango ditu: zati orokorra eta zati espezifikoa. Azken zati horri dagokionez, lanbide-arloen hiru multzo finkatu dira, eta, horietariko bakoitzean Batxilergoko bosna jakintzagaiko eskaintza egingo da, I. eranskinean ageri denaren arabera; beraz, proba espezifikoa egiteko, izangaiak jakintzagai horietako bi aukeratu beharko ditu.

4.– Probak osatzen dituzten jakintzagaietako bakoitzaren ikasgai-zerrendak II. eranskinean ageri dira.

*4. artikulua.*– Salbuespenak.

1.– Ziurtagiri akademiko egokiaren bitartez, Unibertsitatera sartzeko 25 urtetik gorakoentzako proba osorik gainditu dutela egiaztatzen dutenek honako hauek eska ditzakete: erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probatik salbuestea, eta, halakorik bada, goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probaren zati orokorra egitetik salbuestea.

2.– Egin nahi dituzten lanbide-ikasketekin bat datorren lan-esperientzia, gutxienez urtebetekoa, egiaztatzen dutenek honako hauek eska ditzakete: erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko zati zientifiko-teknologikoko alde teknologikoa egitetik salbuestea, eta, halakorik bada, goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probaren zati espezifikotik salbuestea.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, lan-esperientzia egiaztatzeko:

a) Enpresak emandako ziurtagiria, ondokoak espresuki jasoko dituena: interesatuaren kontratuaren iraupena, interesatuak egindako lan-jarduera, baita horretan emandako ordu-kopurua ere.

b) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak edota afiliatuta dagoen lan-mutualitateak emandako ziurtagiria, zeinetan enpresa eta kontratazio-aldia zehaztuko diren.

3.– Halaber, egin nahi dituzten lanbide-ikasketei dagokien teknikari titulua badutela ziurtatzen dutenek, tituluaren fotokopia konpultsatuaren edo tasak ordaindu izana egiaztatzeko agiriaren bitartez ziurtatu ere, honako hau eska dezakete: goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probaren zati espezifikoa egitetik salbuestea.

4.– Salbuespen-eskabidea, betiere, ikastetxe ofizialeko zuzendariari aurkeztu beharko dio interesatuak,

1.– El contenido de las pruebas, que podrán realizarse en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ajustará, en cada caso, a los objetivos establecidos en el artículo 2.2.2 y 2.3.2 de la Orden de 10 de marzo de 1998.

2.– La prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Medio, que será única independientemente del Ciclo Formativo al que se quiera acceder, constará de dos partes: socio-lingüística y científico-tecnológica.

3.– La prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Superior constará, asimismo, de dos partes: parte general y parte específica. Para esta última se han establecido tres agrupaciones de familias profesionales y, en cada una de ellas, una oferta de cinco materias, según figura en el Anexo I, de las cuales el/la aspirante deberá elegir dos para realizar la prueba específica.

4.– Los temarios de cada una de las materias que componen las pruebas se incluyen en el Anexo II.

*Artículo 4.*– Exenciones.

1.– Aquellas personas que, mediante la correspondiente certificación académica, acrediten haber superado totalmente la prueba de acceso a la Universidad para personas mayores de 25 años podrán solicitar la exención de realizar la prueba de acceso a los Ciclos Formativos de Grado Medio o, en su caso, de realizar la parte general de la prueba de acceso a los Ciclos Formativos de Grado Superior.

2.– Quienes acrediten una experiencia laboral de, al menos, un año que se corresponda con los estudios profesionales que pretendan cursar podrán solicitar la exención de la realización del apartado tecnológico de la parte científico-tecnológica de la prueba de acceso a los Ciclos Formativos de Grado Medio o, en su caso, de la parte específica de la prueba de acceso a los Ciclos Formativos de Grado Superior.

Para acreditar la experiencia laboral deberán aportar la siguiente documentación:

a) Certificación de la empresa en la que conste específicamente la duración del contrato, la actividad laboral desarrollada por el/la interesado/a y el número de horas dedicadas a la misma.

b) Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social y/o de la Mutualidad Laboral a la que estuviera afiliado/a, donde conste la empresa y el periodo de contratación.

3.– Asimismo, podrán solicitar la exención de la realización de la parte específica de la prueba de acceso a los Ciclos Formativos de Grado Superior quienes acrediten, mediante fotocopia compulsada del Título o del resguardo de haber abonado las tasas correspondientes, estar en posesión del Título de Técnico que corresponda con los estudios profesionales que deseen cursar.

4.– En todos los casos la solicitud de exención deberá ser dirigida por el/la interesado/a al Director del

inskripzioa formalizatzeko unean aurkeztu ere, eta goragoko paragrafoetan zehazten denez, kasuan kasuko aginduzko agiriak gehitu beharko zaizkio.

5.– Eskabideen gaineko ebazpenak 2005eko maiatzaren 20an argitaratuko dira, probak egiten diren ikastetxeen iragarki-oholetan erakutsiko dira. Bizkaian, dena den, hemen argitaratuko dira: Emilio Campuzano BHIn, Donibane kalea, 7, Bilbo.

*5. artikulua.*– Inskripzioak eta informazioa.

1.– Proba hauek egin nahi dituztenek, heziketa-zikloa zein ikastetxetan egin nahi duten, ikastetxe horretan formalizatu beharko dute sartzeko eskaria, hartarako ezar daitezen epeen barruan, eta eskabide horrekin batera, III. eranskinean agertzen den inprimakian egin beharko dute inskripzioa.

2.– Inskripziorako inprimakian, probak zein lurraldetan egin nahi diren adierazi beharko da.

3.– Aurreinskripzioak egiteko aldia amaitu ondoren, bi eguneko epearen barruan, ikastetxeak honako hauek helaraziko dizkio Lanbide Heziketako dagokion lurralde-unitateari: inskribatutako ikasleek sarrera-proba egiteko aurkeztu dituzten eskabide-inprimakien kopiak (III. eranskina).

4.– Onartzeko eskabidea jasotzen duen ikastetxeak informazioa emango die interesatuei: probak noiz egingo diren, proben edukia, eta abar.

*6. artikulua.*– Probak egitea.

1.– Egin beharreko proben egutegia:

centro oficial en el momento de formalizar la inscripción, debiendo ir acompañada de los documentos preceptivos en cada caso, según se indica en los apartados anteriores.

5.– Las resoluciones de las solicitudes se harán públicas el día 20 de mayo de 2005 en los tablones de anuncios de los centros donde se realicen las pruebas, salvo en el caso de Bizkaia que se publicarán en el IES Emilio Campuzano BHI c/Santos Juanes, 7 de Bilbao.

*Artículo 5.*– Inscripciones e información.

1.– Para la realización de estas pruebas los/as aspirantes deberán formalizar la solicitud de admisión en el centro en el que deseen cursar el ciclo formativo de que se trate dentro de las fechas que al efecto se establezcan y, junto a dicha solicitud, hacer la inscripción en el impreso que figura como Anexo III.

2.– En el impreso de inscripción se indicará el Territorio en que se desea realizar las pruebas.

3.– El centro hará llegar la copia de los impresos de solicitud de la prueba de acceso de los alumnos y alumnas inscritos/as (Anexo III), en el plazo de dos días una vez concluido el periodo de preinscripciones, a la unidad territorial de Formación Profesional correspondiente.

4.– El centro donde se realice la solicitud de admisión facilitará a los/as interesados/as información sobre la fecha de realización, el contenido de las pruebas, etc.

*Artículo 6.*– Realización de las pruebas.

1.– Calendario de las pruebas a realizar:

| ERDI-MAILAKO H.Z.: | GOI-MAILAKO H.Z.: | EGUNA/ORDUA |
|---|---|---|
| – Soziolinguistika | – Zati orokorra | – maiatzak 24, 15:00 |
| – Zientifiko-teknologikoa | – Zati espezifikoa | – maiatzak 25, 15:00 |

| *C.F. GRADO MEDIO:* | *C.F. GRADO SUPERIOR:* | *DÍA/HORA* |
|---|---|---|
| *– Sociolingüística* | *– Parte general* | *– 24 mayo 15:00 horas* |
| *– Científico-tecnológica* | *– Parte específica* | *– 25 mayo 15:00 horas* |

2.– Probak non egingo diren:

Araba: Mendizabala GLHBI. Lasarteko errepidea z/g. Vitoria-Gasteiz.

Bizkaia: Bilbao Exhibition Centre. Euskadi etorbidea, z/g. Ansio. Barakaldo.

Gipuzkoa: Easo GLHBI. Felipe IV etorbidea, 1. Donostia-San Sebastián.

Probak egiten direneko ikastetxeko idazkaritzak ondokoak zaindu beharko ditu: ariketak eta euren kalifikazioak eta ikasleen espedienteak, salbu eta Bizkaian, non Emilio Campuzano BHIk zainduko dituen.

2.– Lugar de realización de las pruebas:

Álava: I.E.F.P.S. Mendizabala. Ctra. de Lasarte s/n. Vitoria-Gasteiz.

Bizkaia: Bilbao Exhibition Centre. Avda. de Euskadi s/n. Ansio. Barakaldo.

Gipuzkoa: I.E.F.P.S. Easo. Avda. Felipe IV, 1. Donostia-San Sebastián.

La secretaría del centro donde se realicen las pruebas custodiará los ejercicios así como sus calificaciones y los expedientes de los/as alumnos/as, salvo en el caso de Bizkaia que serán custodiados en el IES Emilio Campuzano BHI.

Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak egingo ditu prozesuaren gaineko ikuskaritza- eta –aholkularitza-lanak, eta Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak epaimahaiari/ei lagunduko dio/e sarbide-probak prestatzen eta ebaluatzen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1998ko martxoaren 10eko Aginduak, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzea arautzen duenak, bere 2. artikuluko 4.1 paragrafoan ezarritako moduan.

*7. artikulua.*– Proben emaitzak eta erreklamazioak.

2005eko ekainaren 2an, 12:00etan, proba egin zeneko ikastetxearen iragarki-oholean argitaratuko dira emaitzak, salbu eta Bizkaian, non Emilio Campuzano BHIn (Donibane kalea, 7. Bilbo) argitaratuko baitira. Aipatu unetik eta ekainaren 3ko 12:00ak arte, erreklamazioak egiteko epea zabalik egongo da. Erreklamazioak, bestalde, probaren emaitzak argitara eman diren ikastetxearen idazkaritzan egin beharko dira.

2005eko ekainaren 6ko 11:00etan emango da argitara erreklamazioen gaineko ebazpena, aipatu ikastetxeen iragarki-oholetan.

*8. artikulua.*– Proben ziurtagiriak.

Proba gainditu duten ikasleek 2005eko ekainaren 2tik aurrera eskura ditzakete gainditu izanaren ziurtagiriak, emaitzak argitara eman direneko ikastetxearen idazkaritzan hain justu ere.

*9. artikulua.*– Plazak erreserbatzea.

Sarrera-probatik datozen ikasleei heziketa-zikloko plaza guztietarik %25 erreserbatuko zaizkie. Plaza horiek guztiak ezin badira bete probatik datozen ikasleekin, sobran direnak zuzeneko sarrerakoei gehitu zaizkie.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Prozedurari dagokionez, agindu honek arautu gabekoetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, ezarritakoa aplikatuko da.

***Bigarrena.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko azaroaren 22a.

Lanbide Heziketako zuzendaria,
IÑAKI MUJIKA AIZPURUA.

**Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira aipaturiko eranskinak**

La Inspección Técnica de Educación supervisará y asesorará todo el proceso y el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional colaborará con el Tribunal/es en la elaboración de las pruebas de acceso, establecimiento de los criterios de evaluación y la evaluación de las mismas en la forma establecida en el artículo 2 apartado 4.1 de la Orden de 10 de marzo de 1998,del Consejero de Educación Universidades e Investigación, por la que se regula el acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional.

*Artículo 7.*– Resultados de las pruebas y reclamaciones.

El día 2 de junio de 2005, a las 12:00 horas, se harán públicos, en el tablón de anuncios del centro donde se realizó la prueba, los resultados de la misma, salvo en el territorio de Bizkaia que serán expuestos en el IES Emilio Campuzano BHI c/Santos Juanes, 7 de Bilbao. A partir de ese momento y hasta el día 3 de junio, a las 12:00 horas, quedará abierto el plazo para la realización de reclamaciones, las cuales podrán efectuarse en la secretaría del centro donde se han hecho públicos los resultados de la prueba.

La resolución de las reclamaciones será expuesta en el tablón de anuncios de los centros mencionados el día 6 de junio de 2005 a las 11:00 horas.

*Artículo 8.*– Certificado de las pruebas.

Aquellos/as alumnos/as que hayan superado la prueba podrán recoger los certificados acreditativos a partir del día 2 de junio de 2005 en la secretaría del centro donde se hacen públicos los resultados.

*Artículo 9.*– Reserva de plazas.

Para los alumnos y alumnas procedentes de la prueba de acceso habrá una reserva del 25% del total de las plazas del Ciclo Formativo. Si éstas no son cubiertas en su totalidad por alumnos/as procedentes de prueba, se acumularán las sobrantes a las ofertadas para acceso directo.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– En lo no regulado en la presente Resolución en materia de procedimiento será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda.***– La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de noviembre de 2004.

El Director de Formación Profesional,
IÑAKI MUJIKA AIZPURUA.

**En Suplemento aparte se publican los anexos que se citan**